



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

OHIKO BILKURA		<u>Akta Zkia.</u> 11/2007	
TOKIA	EGUNA	Hasiera ordua	Amaiera ordua
Udalbatza aretoa	2007ko irailaren 19an	19:00	21:45
BERTARATUAK			
<p style="text-align: center;">ALKATEA D. Jose Jabier Azpitarte Ariño jn.</p> <p style="text-align: center;">IDAZKARIA Lázaro Milicua Atucha jn.</p>		<p style="text-align: center;">BATZORDEKIDIAK</p> <p>D Rolando Isoird Refoyo jn. D^a M^a Begoña Navarro Bragado and. D^a M^a Pilar Sanz Berasaluce and. D. AMitxel Otero Rodas jn. D^a M^a Carmen Amezua Urcelay and. D. Gorka Camara Hierro jn. D. Aitor Zumelaga Castillo jn. D^a. Aizpea Macarro Barraincua and. D. Koldo Mendez Gallego jn. D^a. M^a Purificación Pérez Gallego and.</p>	

I EKAINAREN 16, 28 ETA UZTAILAREN 11 ETA 25EKO OSOKO BILKURA AKTAK ONARTZEA.

Ekainaren 16, 28ko osoko bilkura aktak aurkeztu dira; eta uztailaren 11 eta 25ekoa. Ekainaren 16ko akta onartu da eta ekainaren 28koa zuzendu, 5. puntuari, uztailaren 11koa 1. puntuari eta uztailaren 25ekoa 88. puntuari.

II EKAINAREN 16TIK ABUZTUAREN 31RA BITARTEKO ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA

Ondoren, 2007ko ekainaren 16tik abuztuaren 31ra bitarteko Alkatetza Dekretuen berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean dago eta dekretuak astero alderdi politikoei pasatzea erabaki da.

I APROBAR, SI PROCEDE LAS ACTAS DE PLENO DE 16 Y 28 DE JUNIO; Y DEL 11 Y 25 DE JULIO

Habiéndose presentado las actas de pleno de 16 y 28 de junio; y 11 y 25 de julio, se acuerda aprobar la del 16 de junio y rectificar el punto 5º del 28 de junio, el punto 1º del 11 de julio y el punto 8 del 25 de julio.

II DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA DEL 16 DE JUNIO AL 31 DE AGOSTO

Seguidamente se da cuenta de los Decretos de Alcaldía del 16 de junio al 31 de agosto de 2007.

El Ayuntamiento pleno se da por enterado y acuerda que los decretos se pasen semanalmente a cada grupo político.



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

III KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA, 13 ZKIA DUEN KREDITU TRANSFERENTZIA ARAUBIDE BITARTEZ

Berrizko Udaleko Aurrekontuari eragiten dion kreditu transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari- kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen da, eta zehazki Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren bozketa egin eta gehiengoaz, 5 boto alde (5 EAJ-PNV) eta 6 abstentzio (4 EAE-ANV, 1 PSE-EE-PSOE eta 1 EA), honako hau erabaki da:

Lehenik.- Berrizko Udaleko aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Transferentzia Kreditu bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

Kapitulua/ Capítulo	Izena Denominación	Aldarazpena aurretiko Kreditua/ Crédito anterior a la modificación	Gutxipena Minoración	Amaierako Kreditua Crédito Resultante
6	Altzariak/ Mobiliario	28.527,44	9.100,00	19.427,44
GUZTIRA / TOTAL		28.527,44	9.100,00	19.427,44

III PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS, MEDIANTE EL RÉGIMEN DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS Nº 13

Dada lectura del Expediente de Modificación de Créditos, mediante Transferencia de Créditos que afecta al Presupuesto de este Ayuntamiento de Berriz.

Se da lectura al informe emitido por el Secretario-Interventor quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el art. 29 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Tras la correspondiente deliberación, se somete a votación y por mayoría de 5 votos a favor (5 EAJ-PNV) y 6 abstenciones (4 EBE-ANV, 1 PSE-EE-PSOE y 1 EA), se acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante Transferencia de Créditos que afecta al Presupuesto de este Ayuntamiento del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

Gastos cuyos créditos se transfieren (bajas)



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

**Gehituko diru kredituak biltzen dituzten
gastuak (altak eta aldakuntzak)**

**Gastos cuyos créditos se incrementan (altas y
variación)**

Kapitulua/ Capítulo	Izena Denominación	Hasierako kreditua Crédito inicial	Gehikuntza Aumento	Amaierako Kreditua Crédito Resultante
6	Informazio-prozesuetarako ekipoak Equipamientos para procesos información	0,00	9.100,00	9.100,00
GUZTIRA / TOTAL		0,00	9.100,00	9.100,00

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoan Kontu-hartzaile Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la Modificación de Créditos aprobada con efectos inmediatos.

PSE-EE-PSOE bozeramaileak adierazi du abstenitu egin dela, 2007ko aurrekontuekin izandako abstentzioarekin bat etorritz

El portavoz del PSE-EE-PSOE manifiesta que se ha abstenido en coherencia a la posición mantenida de abstención en el presupuesto 2007.

IV BERRIZKO KULTUR ETXEO EKITALDI-ARETOAREN AGERTOKIRAKO EKIPAMENDUA HORNITZEKO ESPEDIENTE KONTRATUA ONESTEKO PROPOSAMENA

IV PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN POR URGENCIA DE “SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO ESCÉNICO DEL SALÓN DE ACTOS (CASA DE CULTURA DE BERRIZ)”

Segidan, mahai gainean “agertokirako ekipamendua hornitzeko ” larrialdiko kontratu espedientea aurkeztu da (Berrizko Kultur Etxea).

Seguidamente se presenta sobre la mesa el expediente de Contratación por urgencia de “Suministro de equipamiento escénico del Salón de Actos (Casa de Cultura de Berriz)”.

EAE-ANV alderdiko bozeramaileak azaldu duenez, bere taldeak 2007ko uztailaren 25ean denek onartutako Kultur Etxeko agertoki ekipamenduaren baldintza plegua edo oinarrien onarpena atzeratzera proposatu zuen; EAJ-PNV-k eta EAE-ANV-k proposatutako teknikariek aztertze eta adosteko; partida batzuk kendu edota beste batzuk gaineratzeko, Areto Nagusiari eman nahi zaion erabileraren arabera.

La portavoz de EAE-ANV explica que su grupo propuso en el pleno del 25 de julio de 2007, retrasar la aprobación de las bases o pliegos de condiciones del equipamiento escénico de la Casa de cultura, aceptada por todos los grupos, a fin de que se estudiasen y se conformasen entre los técnicos que propusieron los primeros y los aportados por EAE-ANV, ya que hay partidas que se podrían eliminar e incorporar otras en razón al uso que se piensa dar al salón de actos.



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

Alderdien batzarra eginda, erabaki batzuk hartu ziren baina ez dira islatu eskuartean duten pleguan eta ez dakite zein izan daitekeen arrazoia. Aldaketak honako hauek dira:

- 2.08 partida: lau proiektore barik, bi izango ziren.
- 2.09 partida: bi barik lau.
- 3.01 partida: 02V96V2 modeloa, 01aren ordeza, eta mikrofono partida bi gehitu beharko dira; 3.11.1 eta 3.11.2 izan daitezkeenak.
- 3.12 partida: lau mikrofono multzo barik, bat.
- Eta azkenik, 4.02 partida, intercom-kaxa bi barik batean gelditu ziren; eta aurrekontua osoa ez da aldatzen.

Bestalde, jakin dutenez, enpresa bateko teknikariak, hiru urtez plegu teknikoak egiten jardun du eta enpresa horrek lehiaketan parte hartzeko asmoa omen du; azterketa bat egin aurretik galderak izatea bezala eta gainera bulego teknikoaren teknikariek egin du Kultur Etxeko eraikinaren obra zibilean. Ez dakite, juridikoki eraginik izango duen ezta enpresa hau lehiaketatik kanpo gera daitekeen eta bestalde, ekipamendu eszenikoaren aholkularitza teknikoaren egiteagatik zerbait ordaindu zaion edota lana borondatezkoa izan den.

Gorkak, EAE-ANV-ko zinegotziak adierazi duenez, herrian honelako aholkularitzak emateko jende aditua badago eta preferentziarik gabe, ez baitute inolako loturarik enpresekin.

Mantenida dicha reunión entre las partes se llegaron a unos acuerdos que no se han reflejado en el pliego que tienen entre las manos y desconocen el motivo. En concreto las modificaciones que se consensuaron son las siguientes:

- Partida 2.08: en vez de cuatro proyectores, se quedaron en dos
- Partida 2.09: de igual forma en vez de cuatro se quedaron en dos
- Partida 3.01: se quedó en el modelo 02V96V2 en vez de 01, luego había que ampliar dos partidas de micrófonos que podrían ser 3.11.1 y la 3.11.2
- Partida 3.12: en vez de cuatro conjuntos de microfonía se quedó en uno
- Y por último la partida 4.02, petaca intercom en vez de dos se quedó en uno; de tal forma que el presupuesto total no variaba.

Por otro lado dice que se han enterado de que el técnico de una empresa ha estado durante tres años elaborando los pliegos técnicos y que la empresa tiene intención de participar en el concurso y dice que es como que a la hora del examen tiene las preguntas de antemano y que incluso ha colaborado con los técnicos de la oficina técnica en la obra civil del edificio de la Casa de Cultura. Desconoce si jurídicamente tiene repercusión y se puede impedir que esta empresa se presente al concurso y por otra parte si se ha pagado algo por haber hecho la labor de asesoría técnica del equipamiento escénico o su trabajo ha sido voluntario.

Gorka concejal de EAE-ANV añade que en el pueblo hay mucha gente preparada para hacer la labor de asesoría de la materia que tratamos y sin ninguna preferencia porque no tienen vinculación con



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

Alkateak adierazi du hurrengo Osoko Bilkurako txosten tekniko eskatuko duela, V. eranskinean ez agertzearena azaltzeko; teknikari aholkulari eta EAE-ANV-k proposatutako enpresen arteko adostasuna eta era berean, obrak burutu dituen teknikariari be txostena eskatuko zaio eta kultura teknikariari ere; zergatik aukeratu diren kanpoko teknikariak eta hauen inplikazio gradua argitzeko, ia aholkulari baten enpresak lehiaketan parte har dezakeen eta bestelako gaien inguruan (kontrataziorik egon den, nola egin den, aurretiazko ordainketarik egin zaion aholkulariari, zergatik..) horien inguruko txosten juridikoa. Bulego teknikoak eta kultura teknikariak azalduko dute eta aurretiaz argi utzi behar dugu, Udalaren aldetik ez dagoela inolako loturarik inorekin eta are gutxiago teknikariekin.

Ondoren, EAE-ANV-k aurkeztutako aldaketak onartu eta pleguan zuzenduko dira; bozketa egin eta emaitza:

- Onarpenaren aldekoa, zuzenketak sartuz eta larrialdi deklarazioa 5 boto (EAJ-PNV).
- Botoak kontra, bat ere ez.
- Abstentzioa, 6 boto (4 EAE-ANV, 1 PSE-PSOE eta 1 EA).

Aho batez onartu da.

EAE-ANV-ko bozeramaileak euren abstentzioa azaldu du; bere taldeak plegu zuzenketan eta behin-betiko pleguetan parte hartu arren, espediente tramitazioan puntu beltzak daude.

ninguna empresa.

El Alcalde en respuesta dice que para el próximo pleno se pedirá un informe técnico de por qué no está plasmado en el Anexo V, el acuerdo que llegaron entre el técnico asesor y los propuestos por EAE-ANV y que a su vez, también se pedirá un informe al técnico que ha hecho las obras y al de cultura para que nos expliquen, por qué se ha recurrido a técnicos externos y su grado de implicación; y un informe jurídico por si la empresa de uno de los asesores puede participar en el concurso, y sobre el resto de las preguntas del por qué, cuándo, cómo y de qué forma, si ha habido contrato, pago al citado asesor, etc. Tanto la oficina técnica como el técnico de cultura darán razón de ello y por supuesto adelantar que desde el Ayuntamiento no hay intencionalidad de ningún tipo con ninguno absolutamente para nada y con los técnicos menos todavía.

Seguidamente con la aceptación de las modificaciones presentadas por EAE-ANV que se corregirán en el pliego; se propone votación con el siguiente resultado:

- A favor de la aprobación, con la inclusión de las correcciones y declaración de urgencia 5 votos (EAJ-PNV).
- Votos en contra, ninguno.
- Abstenciones, 6 votos (4 EAE-ANV, 1 PSE-PSOE y 1 EA).

Por lo que por mayoría se aprueba.

La portavoz de EAE-ANV indica que se han abstenido porque, aunque su grupo ha participado en la corrección de pliegos y elaborar el definitivo, hay muchos puntos oscuros en la tramitación del expediente.



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

PSE-EE-PSOE-ko bozeramailea abstenitu egin da harrিতa dagoelako V. eranskina egiteko parte hartu duen aholkulariaren enpresa, lehiaketan egon daitekeelako; hau da, azterketara joan orduko galderak jakin eta gainera berak egindakoak direlako. Pleguan, kontratu legearen aipamena egiten duten eranskinak daude; lehiaketan parte hartzen duten guztiek baldintza egoera berbera izango dutela.

V BERRIZ HERRIKO 2008KO JAI EGUNA ONARTZEA

Ondoren, ekainaren 19ko 102/2007 Dekretuaren berri eman da (EHAA 135 zkian argitaratuta, 2007ko uztailaren 13an) eta 2.2 artikuluan adierazten duenez; Udalak herriko jai egun proposamena egin behar du eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren Lurralde Ordezkaritzara bidali.

PSE-EE-PSOE-ko bozeramaileak esan du Santuen izendegian, San Pedro, Santa Isabel eta San Anton santuak baino gehiago daudela eta azkeneko bi Aita Santuek, eliza-sektaren izenean, jende gehiago kanonizatu dituztela eta hau infinitua izan daitekeela. Bestalde, jaiak ez dutela derrigorrez loturarik izan behar judu-kristau liturgia eta moralarekin. Jaiak herrien izaera eta nortasunaren fruitu dira; eta ikuspuntu honetatik, denon artean horrelako egun bat hautatu behar dugu. Gainera, errespetu falta da jaien programazio zibilean mezak aipatzea, Udala erakunde ez-konfesionala denean. Ez gaude derrigortuta elizaren erregimenean egotera; ez daukagu zerikusirik erakunde honekin. Jai programazioetan, ez da mezarekin zerikusia duen ezer agertuko. Aurrekoa Udaletxe aurrean egin beharko litzateke eta ez erakunde pribatu baten aurrean. Gainera, Berrizko zenbait herritar frankismoak erail zituen; euren ideiak

El portavoz de PSE-EE-PSOE indica que se ha abstenido porque le ha sorprendido que el asesor que ha participado en la elaboración del Anexo V, su empresa pueda participar en el concurso, no vale decir que va al examen sabiendo las preguntas, es más, las preguntas las he hecho él. En el pliego hay anexos con referencias a la Ley de contratos que preservan que todos los que se presentan al concurso lo hacen en igualdad de condiciones.

V APROBAR LA FIESTA LOCAL DE BERRIZ PARA EL AÑO 2008

Seguidamente se da cuenta del Decreto 102/2007, de 19 de junio (publicado en el B.O.P.V. nº 135, de 13 de julio de 2007) que señala en su articulado 2.2. que los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas de fiesta local y remitirlos a la Delegación Territorial del Departamento de Justicia, empleo y Seguridad Social.

El portavoz de PSE-EE-PSOE indica que en el Santoral hay más santos que San Pedro, Santa Isabel y San Antón y los dos últimos Papas, jefes de la secta que es la iglesia están canonizando a más gente y más rápido y esto puede ser infinito. Por otro lado, las fiestas no tienen porqué estar ligadas a la moral y liturgia judeocristiana, sino que las fiestas nacen y son fruto de los hechos que configuran la naturaleza y personalidad de los pueblos; y que desde ese punto de vista, entre todos tenemos que buscar un día que sea ése; y que es una falta de respeto y una falta de consideración que las fiestas que se ponga en el programa civil el hecho de la misa, esto es un asunto privado y no debe estar en los programas, el Ayuntamiento es una institución aconfesional y no estamos obligados a estar en régimen de la iglesia y no tenemos nada que ver con esta institución. En los programas de fiestas no debe estar lo que hace relación a la participación en misa,



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

defenditzeagatik. Ez dugu ekintza tamalgarri bat ospatu nahi baizik eta egoera zail batean, euren ideiak defenditzeagatik bizia galdu zuten herritar batzuen duintasuna eta adorea goraiatu. Horregatik 1937ko herritar horiek gogoratzeko, herriko jai egun moduan irailaren 11 proposatzen dut.

Ondoren, Alkateak herriko jaia gaur arte izan duen egunean mantentzea proposatzen du, hau da, 2008rako uztailaren 2an (Santa Isabel) eta aldatu aurretik Jai batzordeari edota udalerriko elkarteei komentatzea.

Segidan, EAE-ANV-ko bozeramaileak adierazi du bere taldea ados dagoela PSE-EE-PSOE-ko ordezkariarekin irailaren 11 herriko jai egun izendatzeko; horrela Berrizko herriak, 1937ko irailaren 11n zer gertatu zen jakingo du eta bitartean Berrizko talde edo elkarteekin hitz egin eta datozen urteetarako jai eguna erabakiko da. Egun hau mantendu edo besteren bat hautatzea.

Aurkeztutako proposamenen bozketak, emaitza hau izanik:

- Lehena: 2008ko uztailaren 2a herriko jai eguna: 4 boto (EAJ-PNV)
- Bigarrena: 2008ko irailaren 11a herriko jai egun bezala: 6 boto (4 EAE-ANV; 1 PSE-EE-PSOE, 1 EA)
- Hirugarrena: Abstentzio 1 (EAJ-PNV)

Beraz, 2008ko jai eguna, irailaren 11 izango da, 1937koa gogoratzeko.

que los aurrekus se bailen delante del Ayuntamiento y no a la salida de un centro privado y por otro lado hay una fecha que mujeres y hombres de Berriz fueron asesinados por el franquismo, por la defensa de ideas. No queremos conmemorar un hecho luctuoso, sino queremos celebrar que la dignidad y capacidad de unas personas que en unos momentos difíciles, hizo posible que fueran capaces de defender las ideas hasta el final, por eso propone que la fiesta local de recuerdo a esos hombres de 1937 sea el 11 de septiembre.

A continuación el Alcalde propone que la fiesta local se mantenga en la fecha que se ha venido haciendo habitualmente, es decir, para el año 2008 el día 2 de julio (Santa Isabel) y antes de cambiar se pueda consultar a la comisión de Fiestas o a las asociaciones del municipio.

Seguidamente la portavoz de EAE-ANV indica que su grupo está de acuerdo con el representante de PSE-EE-PSOE en que para el año 2008 se designe la fiesta local el 11 de septiembre, ya que puede ser un motivo para que la gente de Berriz se entere ese día qué pasó el 11 de septiembre de 1937 y mientras, hablar con los grupos o asociaciones de Berriz y posteriormente decidir, cuál será la fiesta para años venideros. Mantenernos o elegir otro nuevo.

Propuesta la votación de las proposiciones presentadas, tiene el siguiente resultado:

- Primera: Fiesta local el 2 de julio de 2008: 4 votos (EAJ-PNV)
- Segunda: Fiesta local el 11 de septiembre de 2008: 6 votos (4 EAE-ANV; 1 PSE-EE-PSOE, 1 EA)
- Tercera: 1 concejal de EAJ-PNV se ha abstenido

Por lo tanto la fiesta local para el año 2008 es el 11 de septiembre, recuerdo de 1.937.



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

VI ONARTU, HALA BADAGOKIO, ERRALDE SL-K BERRIZ TERMINOA ERABILTZEKO BAIMENA

Kontuan izanik, ERRALDE DURANGOKO HILTEGIA, S.L-ren eskaera, Berrizko udalerriko izena erabiltzeko, "Berrizko Txuletoia – Chuletón de Berriz" marka sortzeko .

Kontuan hartuz, Berrizko Udalak, Berriz izenaren erabilera egokia egin behar duela.

Udaleko Osoko Bilkurak, hamaika zinegotziek aho batez, Erralde Durangoko Hiltegia, S.L-ri baimena eman dio "Berriz" izena erabiltzeko, "Berrizko Txuletoia – Chuletón de Berriz" markarako, eta erabakia atzera bota daiteke, erabilera desegokia egingo balitz .

VII GALDE-ESKEAK

Lehena.- EAE-ANV-ko ordezkariak osoko bilkuren aldibereko itzulpena proposatu du. Horretarako aurrekontu batzuen azterketa egingo da. Denak ados.

Bigarrena.- EAE-ANV-ko bozeramaileak galdetu du, Udaletxe zaharreko obra lizentziarako baimenik eskatu den eta nola laga zaion eraikin hau Foru Aldundiari 18 urterako bestelako kontraprestazio ekonomiko barik. Bestalde, Berriztik pasa den autobidea soinu-gabetzeko eskaera egitea Foru Entitateari.

VI APROBAR, SI PROCEDE, LA CONCESIÓN DE PERMISO DE USO DEL TÉRMINO BERRIZ A ERRALDE S.L.

Teniendo en cuenta la solicitud de ERRALDE DURANGOKO HILTEGIA, S.L. para utilizar el nombre del municipio de Berriz para la creación y registro de la marca "Berrizko Txuletoia – Chuletón de Berriz".

Considerando que el Ayuntamiento de Berriz debe preservar el buen uso del nombre de Berriz.

El Ayuntamiento pleno por unanimidad de los once concejales que componen la corporación acuerda conceder el permiso a Erralde Durangoko Hiltegia, S.L. para la utilización del término "Berriz" para la creación de la marca "Berrizko Txuletoia – Chuletón de Berriz", pudiendo revocarse el acuerdo, si no se hace buen uso del término Berriz.

VII RUEGOS Y PREGUNTAS

Primero.- La representante de EAE-ANV propone la traducción de los plenos. Para ello es necesario hacer un estudio y solicitar presupuestos. Están de acuerdo todos.

Segundo.- La portavoz de EAE-ANV pregunta si se ha solicitado permiso para licencia de obras del Ayuntamiento viejo y cómo se ha cedido dicho edificio a la Diputación foral por plazo de 18 años sin contraprestación económica, se propone solicitar que el Ente Foral insonorice la autopista a su paso por Berriz.



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

Alkateak erantzun du, Udalaren erreklamazio bidez, lizentzia hori eskatu dutela eta soinugabetzeari dagokionez, Aldundiko Herri-lan sailak onartuta du aurreko legegintzatik.

El Alcalde contesta que mediante reclamación del Ayuntamiento, sí han solicitado la licencia y en cuanto a la insonorización le consta que el Departamento de Obras Públicas de la Diputación tiene aprobada desde la pasada legislatura.

Hirugarrena.-EAE-ANV-ko bozeramaileak adierazi du Lege eta Hirigintza-Aholkularien kontratazio espedienteak irregularrak direla; beraz, urte amaiera baino lehen legezkatzea proposatzen du. Alkateak berriz, Idazkaritza- Kontu-hartzaile sailari txostena eskatu zaiola lege eta hirigintza aholkularitza kontratazioak edo esleipenak egiteko.

Tercero.- La portavoz de AEA-ANV indica que los expedientes de contratación de las Asesorías Jurídicas y Urbanística están irregulares, por lo que propone que se legalicen antes de fin de año. El Alcalde responde que se ha solicitado informe a la Secretaria-Intervención para que se lleve adelante la contratación o adjudicación de Asesorías, tanto jurídica como urbanística.

Laugarrena.- EAE-ANV-ko bozeramaileak galdetu du noiz konbokatuko den SUSA-ko batzorde orokorra. Alkateak erantzun du, Berriz SUSA-tik etorri behar duela deialdia.

Cuarto.- La portavoz de EAE-ANV pregunta cuando se va a convocar la Junta General de Berriz SUSA. El Alcalde le responde que la convocatoria vendría de Berriz SUSA.

Bosgarrena.- EAE-ANV-ko bozeramaileak, Batzorde informatiboen presidentziaren gaineko informazioa eskatu dio Alkateari, EAJ-ko zenbait zinegotzik Presidente funtzioa betetzen ari direlako. Alkateak esan du, hilabete honetan erabakia hartuko duela eta zinegotzien kasuan, beste alderdi batzuetako zinegotziak bezala, lanean ari direla. Gorka Camarak, EAE-ANV-ko zinegotziak adierazi du, Udalaren egoera egokia, funtzioak zinegotziengan delegatzea izango litzatekeela eta uztailaren 11n esan zenez, Alkateak erantzun bat emango zuen irailerako.

Quinto.- La portavoz de EAE-ANV solicita al Alcalde que informe sobre el tema de la Presidencia efectiva de las Comisiones Informativas porque ven que hay concejales del PNV que están haciendo labores de Presidentes. El Alcalde responde que para fin de mes tiene intención de tomar la decisión y en cuanto al trabajo de los concejales indica que no pueden estar parados y trabajan como cualquiera de otro grupo. Gorka Camara Concejal de EAE-ANV indica que la situación ideal en el Ayuntamiento era delegar funciones en concejales y el 11 de julio se dijo que para septiembre habría una contestación por parte del Alcalde.

Seigarrena.- PSE-EE-PSOE-ko bozeramaileak galdetu du udaletik nor joan den EUDEL-en izan den batzarrera. Alkateak esan dio ez dela inor joan eta Eudel-eko ordezkariaren inguruan Osoko Bilkuran hartutako erabakia dela eta,

Sexto.- El Portavoz de PSE-EE-PSOE pregunta quién ha asistido por parte del Ayuntamiento a la Asamblea celebrada hoy por EUDEL. El Alcalde le contesta que nadie y que tiene solicitado informe sobre la forma de proceder ante el



BERRIZ ELIZATEKO UDALA

Iturritza kalea 51 • 48240 – BERRIZ

☎ 946 824 036 – 946 824 584

Faxa 946 827 950

www.berriz.org

txostena eskatu dela; ia funtzionamendu araudiak esaten duen Alkateak joan behar duen edo Alkateak delegatzen duena. Koldok dio, erraz duela Osoko Bilkura subiranoa denez, zein zinegotzik ordezkatu duen erabaki zuela eta alkateak zinegotzi horrengan delegatzea baino ez daukala. Alkateak esandakoa berretsi du.

Zazpigarrena.- PSE-EE-PSOE bozeramaileak aipatu du, Udala inguratzen duen horma kendu behar dela; herritarrek bertako lorategi eta berdeguneak disfruta ditzaten. Hormek distantzia jartzen dute herritar eta Herriko Etxearen artean eta horma hori kendu edo ez bozkatzera proposatu du. Bozketa egin eta emaitza: udaletxea inguratzen duen horma kentzeko 6 boto (4 EAE-ANV, 1 PSE-EE-PSOE, 1 EA), eta ez botatzeko 5 boto (5 EAJ-PNV). Abstententzio 0

Besterik gabe, batzarra amaitu da, ondoren alkateak, zinegotziek eta idazkariak akta sinatu dugu, eta nik horren fede ematen dut.

ZINEGOTZIAK

Sin./Fdo.

acuerdo adoptado por el Pleno en cuanto a nombramiento de representante del Ayuntamiento en Eudel, si el Reglamento de Funcionamiento dice que tiene que ser el Alcalde o quien delegue el Alcalde. Koldo le indica que tiene fácil, pues el Pleno que es soberano ha decidido qué concejal sea el representante y así el Alcalde no tiene más que delegar en dicho concejal. El Alcalde se ratifica en lo manifestado anteriormente.

Séptimo.- El portavoz de PSE-EE-PSOE indica que se debe eliminar el muro que rodea al Ayuntamiento, ya que no se puede permitir que los vecinos de Berriz no disfruten de los jardines y espacios que rodean al edificio del Ayuntamiento. Los muros dan sensación de lejanía entre los vecinos y la Casa del Pueblo y propone que vote si eliminar o no el muro. Efectuada la votación tiene el siguiente resultado: A favor de eliminar el muro que rodea el Ayuntamiento 6 votos (4 EAE-ANV, 1 PSE-EE-PSOE, 1 EA), en contra 5 votos (5 EAJ-PNV). Abstenciones 0

Y sin más asuntos a tratar se levanta la sesión, firmando a continuación el Alcalde, los Concejales y el Secretario que doy fe del acto.

ALKATE JAUNA

Jose Jabier Azpitarte Ariño

FEDE EMATEN DUT, IDAZKARIAK

Lazaro Milicua Atucha